

Megaproiektu Turistiko Antidemokratikoa



IÑAKI BARCENA
EKOPOL ETA
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Duela bi urte Urdaibai Guggenheim Stop! plataforma herritarra sortu zenetik, *Urdaibai ez dago salgai!* leloa nonahi ari gara entzuten. Joan den urriaren 19an Gernikan milaka lagun bildu ginen proiektu horri ezetza emateko eta, nire aburuz, hiru dira arrazoi nagusiak Busturialdean, Biosferaren Erreserban eta Oka ibaiaren estuarioan egin nahi duten museo istilutsu horren aurka egoteko.

Lehenik, megaproiektua da. Euskal ekologisten ekitaldian hitz eta kontzeptu hori agertzen da maiz. Megaproiektua, zergatik? Pablo Lorente, Sustrai Erakuntza Fundazioko kide nafarrak dioenez, ez da taimainaren kontua soilik, baizik eta kanpotik datorren proiektua dela, interes ekonomikoengatik, negozioa egiteko. Eredu aukeratu baten “aberastasuna” eraisteko proiektua, alegia. Kanpoko eragileek diseinaturik eta etekinak kanpora eramateko eginda, hor dago kokka! Bide horretatik, estraktibismoaren dinamikak megaproiektuak dakartza. Globalizazio/glokalizazioaren eta merkatu librearen logikaren produktua dugu eta, gaur egun, antza, ezin zaie indar eta elite ekonomikoek galgarik jarri. Mega = milioi bat unitate, dirutan... euro asko.

Bigarrenik, turistikoa da. Bilboko Guggenheim museoa (1997) ikur turis-

tiko bihurtu da. Egun, turismoa industria-jarduera garrantzitsua da, jende eta kapital mordoa mugitzen dituen, baita arazo ugari sortu ere. Arazo sozio-ekologiko sakonak, ekosistemen galerak, biztanleen deserriratzek, energia eta materialen xahuketa, eta suntsiketa handiak ere. Horrexegatik mundu osoan, Venezian eta Bartzelonan, Kantabrian eta Balearretan, Donostian eta Busturialdean, “turismoaren desazkundean” aldeko mugimenduak ari gara ikusten. Diru bilketak esku gutxitan, langileen prekarizazio joerak zein galera ekosozialak... horiexek baino ez dakartza turismoaren industriak.

Eta hirugarrenik, antidemokratikoa da. Busturialdean, egun, Gernikako Gorroño alkateari zein Bizkaiko Aldundiari, baita Eusko Jaurlaritzari eta Madrilgo Gobernari ere, kritika hori zuzentasunez egiten zaie. Eta Guggenheim Fundazioari ere bai. Bizkaiko Aldundiaren kargu nagusiak (Elixabete Etxanobe) honelaxe zioen manifestazio erraldoiaren aurretik: “Oraindik ez dago ezer erabakita, prozesu parte-hartzaile bat martxan jarriko da, baina Guggenheim Urdaibain egingo da”. Hori demokraziaren eredu!

Txema Garcia kazetari lagunarekin ados gaude: “Museoa Urdaibai bera da, ez da besterik behar”. ●

Irautea



ARANTZA GUTIÉRREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Indarkeria matxistagatik Iñigo Errejónen aurkako salaketa dela-eta, badirudi batzuk konturatu direla ezkerreko alderdi, sindikatu eta erakundeetan ere emakumeok ez gaudela gizon kideengatik biolentzia jasotzetik aske. Argi geratu da, gainera, halako egoeratan batzuek ezjakinarena egin eta beste aldera begiratzea erabakitzen dutela, eta soilik mugitzen direla salaketa bat dagoenean edo/eta eraso publiko egiten denean. Orduan bai, errudunak bilatzen dituzte, protokoloek kale egin dutela aitzakiatzen dute, eta sorturiko krisia lehenbait lehen konpontzen saiatzen dira, ahal

den kalterik txikienarekin ateratzen, eta ez beti eraso egin diotena babesten.

Protokoloek funtzionatzen dutenean ere, zaila, ia ezinezkoa da antzematea ia oharkabean gertatzen den indarkeria: *arzalpena* edo *mansplaining-a*, hitzen txanda eta denbora metatzea, gutxiespenak... ingurune-biolentzia deitzen dena, alegia. Zenbaitetan jasaten duenak ere ez daki identifikatzen eta esajeratzen ari dela uste du, gainerako kideek ere erlatibizatzeke esaten baitiote. Eta horretaz ere hitz egin behar da, ezkerreko mugimendu mistoetan emakumeek irautea nahi bada, behintzat. ●